

# ITZIAR'KO ANDRE MARIAREN GORAMEN



Euskalerriko Erregin zeran  
Itziar'ko Ama maite!  
Gure erriaren zotiñak entzun,  
ta gutzaz erruki zaite!

Itziar'era bidean goaz  
gure Amaren galdezka;  
gure biotzak, maitasun-garrez,  
ditugulatik gañezka.  
Bidean gora ikusi degu  
eliz maitea saieska;  
Ama gozoak an artu gaitu  
guztiok irri-parrezka.

Egunik-egun, gizaldietan,  
joan da urte-gurpilla.  
Jaunak ala nai, ta or dioja  
Erreten'go neskatilla.  
— Ene! Zerk nastu dio biotza?  
Zerk lotu pauso ixilla?...  
Zeruko Ama agertu zaiol  
ta an geldi da erdi-illa.

Elorri-sasiz dagoen txarak,  
eman du Lore bikaña;  
ta Ari begira, antxe daukagu  
zoratzet nexka liraña.  
«Ni naiz—diotsa Ama Birjiñak—  
Aingeruen Erregiña,  
eta ementxe ikus nai nuke  
nere Eliza egiña».

Neskatzak oei entzun-ondoren,  
eztu beretzat betarik;  
berri ederra auzo guzian  
zabaldu digu bertatik;  
an dira pozik Itziartarrak,  
Miraria ikusi nairik;  
Zeruko Ama an dute, Jesus  
magalean dualarik.

## ITZIAR'KO ZAINDARIA

### ITXAS GIZONA'REN LAGUNTZALLEA

Zabaleta'ko gain politean  
ez ote egoki eliza?...  
Ala ustean, an asi dira  
lañean, erlean gisa;  
baña Zeruko Amak berago  
nai du aterpe-keriza;  
ta Aingeruak, goian jasoa,  
bera daramate aisa.

Iru alditan jasoa degu  
gaur degun eliz ederra;  
eta bi aldiz ezagutu du  
oñeztarrien okerra;  
baña berriro euskal-fedeak  
zuzendu du ezbearra;  
lur onetako gau illunean  
izan dezagun Izarra.

Oñak lurlean dituzu, Ama,  
baña begiak uretan;  
argatik gure mariñel onak  
maite zaituzte benetan;  
eta Itziar'ko eliz maitea  
aurrez-aurre dutenetan,  
txapela kendu ta asten zaitzizku  
itxasotik ototzetan.

Gure mariñel aipatuenak,  
itxasora joan aurrez,  
zure eliz ontan alortu eta  
jaunartzen zuten biotzez;  
ortxe Meza bat entzunaz, zure  
aldare-aurrean auzpez,  
olatuekin burrukatzera  
irten oi-ziran kemenez.

Elkano bera, mündo guzian  
inguratu-ondorean,  
eriotz-aurrez emanikako  
azken-agiri itzalean,  
berrogei dukat urretan utzi  
zizkizun oroipanean.  
Ainbesteraño sartua zeunden  
mariñelen biotzean!

Itxaso eta legorrekoak  
zure Kopradi-barruan,  
amaika eskeintz egin zizuten  
urte askoren buruan.  
Ta Zuk, ordañez, ainbat erruki  
ixuri dezu inguruan!  
Argatik malxo gozotan gaude  
zure aldare-onduan.

Nola alargunak, ala umezurtzak,  
naiz erromes nekatuak,  
elbarri, gaxo, itxas-uretan  
il-zorian arkituak,  
kartzeletako erreakarri ta  
pekatari damutuak,  
zeñen ederki sendatzen ditun  
gure Ama Itziar'kuaki!

Mendi-gañean agiri zauden  
euskaldunon Ama xarra!  
Itxasoari argi egiñaz  
zaitugun Argi goitarra!  
Zaite lurlean gure biotzen  
gordeleku ta indarra;  
ta zeruetan, pakezko Kalan,  
gure Zorion bakarra!

Euskalerriko Erregin zeran  
Itziar'ko Ama maite!  
Gure erriaren zotiñak entzun,  
ta gutzaz erruki zaite!

Y. In conceptione tua, Virgo Immaculata fuisti.

OREMUS

B. Ora pro nobis Patrem, cuius Filium peperisti.

Deus qui per Immaculatam Virginis Conceptionem dignum Filio tuo habitaculum preparasti: quæsumus, ut qui ex morte ejusdem Filii sui prævisa eam ab omni labe præservasti, nos quoque mundos ejus intercessione ad te pervenire concedas. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen

Batzuek

I-tzi-ar'e-ra bi-de-an go-az gu-re A-ma-ren gal-dez-ka. Gu-re bi-ot-zak maita-sun-gar-rez  
di-tu-gu Ja-rik gañez-ka. Bi-de-an go-ra i-ku-si de-gu e-liz ma-te-a so-les-ka. A  
ma go-zo-ak an ar-tu gai-tu guz-ti-ak ir-i pa-rez-ka. Eus-kal-er-ri-ko E-  
re-gin er-ri-aren I-tzi-ar-ko Ama ma-te-ri Ju-ree-ri-a-ren zo-ti-ñak ent-zun ta gut-zaz er-ru-ki zai-te!

Donosti'ko Obispo Jaunak goramen auk biotzez otoi edo  
abesten dituzten guzieri, 100 eguneko barkamena ematen die.

Ernaniz Nemesio Apaiz Jauna'ren Itzak. Escudero Franciscó'ren eresía.



**Batzuek**

l tzi.ar'e.ra bi.de an go.az gu.re A.marengaldez.ka; Gu.re bi.o.tzak mai.ta.sun.ga.réz

This system contains the first musical system. It features a vocal line in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a piano accompaniment in bass clef. The lyrics are written below the vocal line.

di.tu.gu Ja.rik gañez ka Bi.de.an go.ra i.ku.si de.gu e.lizmaite.a sa.ies.ka A.

This system contains the second musical system, continuing the vocal and piano parts from the first system.

**Guziak**

ma go.zo.ak an ar.tu gai.tu guz.ti.ok i.ri pa.réz.ka. Eus.kal E.ri.ko E.

This system contains the third musical system, starting with the section header 'Guziak'. It continues the vocal and piano parts.

*poco rit.*

re.giñ ze.ran l.tzi.ar'ko Ama ma.f.te! Gu.ree.ri.a.ren zo.ti.ñakentzun ta gutzaz e.ñuki zai.te!

*poco rit.*

This system contains the final musical system on the page. It includes the instruction 'poco rit.' above the vocal line and below the piano line. The system concludes with a double bar line.